

## GAKO EKONOMIKOAK

- AEB-en eta Txinaren artean gerra komertziala areagotzen ari da; herrialde amerikarrean, berriz, inflazioa azkartzearen kezka erlaxatzen.
- Horrez gain, burtsa kaltetuen beste erorketa batzuk, alor teknologikoan bizitutako gertakariengatik.
- Zorrenaren hobekuntza Atlantikoaren alde bietan, bereziki Europaren alde periferikoetan. Errenta finko pribatuaren jokaera eskasa.
- Aldakuntza handirik gabe, ezegonkortasun geopolitikoa izan arren, aldaketa motetan.

## MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Martxoan ere ezegonkortasuna nagusitu da merkatu finantzarioetan, arazo geopolitikoaren eskutik oraingoan. Iparramerikako gobernuak Txinako inportazioei arantzelak jartzeak, Txinarekin duen defizit komertziala murrizte aldera, herrialde horren erantzun proportzionala ekarri du, eta negoziatzera esertzeko nahia adierazi du behin eta berriz. Bi herrialdeen arteko tentsioa areagotzeak kezka sorrarazi du, eskala handiko gerra komertzial bat piztuko ote den, horrek ekarriko lukeen arriskuarekin hazkunde ekonomiko sinkronizatua errailetik ateratzeko. Bestalde, inbertsiogileen ziurgabetasunaren beste fokua, Ameriketako tasak gehiegi igotzearen beldurra alegia, apaldu egin da pixka bat martxoan, soldata-kostuen eboluzioa normalizatu denean, aurreko hilean izandako igoera ta gero, otsaileko zuzenketen abiaburu izan zena, oneratu ondoren. FEDek, bestalde, aurreikusita zegoen jokabideari eutsi dio eta Jerome Powell presidente berriak %0,25 jaso ditu tasa ofizialak (%1,75eraino), aurreko deskontatzen ari diren hiru igoeretako lehenengoa gauzatu. Europak ere ezin izan dio ihes egin nolabaiteko intentsitate politikoari. Italian, hauteskundearen emaitzak ziurgabetasuna ekarri du berriro ere gobernuaren osakerari dagokionez, eta Erresuma Batuak, lehentasuna emanez Brexit osteko akordio hobe bat lortzeari, men egin die EBren eskariei 2019ko martxotik 2020ko abendura bitarteko trantsizio-aldirako. Alderdi makroekonomikotik, EBZk egindako aurreikuspenek Europako hazkundearen goranzko berrikuspen txiki bat iradokitzen dute aurtengo urterako, oraintsu aurreratutako datuetan geldialdia sumatzen bada ere orain arte lortutako maila garaiei buruz. Aitzitik, Draghik beherantz berrikusi du inflazioa, eta horrek, oraingoz, orain arteko politika moldakorrari eustera eramango du. Hala ere, harridura ekarri du bonuak erosteko programa handitzeko posibilitatea bere diskurtsotik ezabatu izanak, ematen duelako adierazten duela etorkizunerako daukan gidoian politika monetarioaren normalizazioan aurrera egitea sartzen dela.

## ERRENTA ALDAKORRA

Hilabete konplikatu bizi izan dute burtsek martxoan, eta galera gehiago pilatzen jarraitu dute. Estatu Batuen eta Txinaren arteko tentsioak direla-eta, inbertsiogileek ez diete jaramonik egin argitaratu diren enpresa-emaitza onei, ezta korporazioen mugimenduaren irakinaldiari ere. Hegakortasunak eraginda, %2,7ko jaitsierarekin amaitu du hila S&P indizeak. Nasdaq indize teknologikoa okerrago atera da (-%4), Facebook-eko informazioarekin egindako iruzurrak piztutako eskandaloak erasanda, horrek ireki baitu negozio erraldoien (Google, Amazon...) erregulazio-arriskuaren atea, eta Europa aldetik erraldoi horien salmentak zergapetzeko igorritako zunda-globoak kaltetuta. Kontinente Zaharrean, urteko minimoak markatu dituzte berriro ere indizeek; izan ere Eurostoxx indizeak %2,25eko beherakada izan du martxoan, eta %2,4koa lbexak. Japoniak ere behera egin du, nazioarteko gainerako indizeen bide beretik, baina, aldiz, emergente batzuek, Latam indizeak esaterako, hobetoxeago eutsi diete erorketei.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2018ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	9.600,40	EUR	%-2,44	%-4,42
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.361,50	EUR	%-2,25	%-4,07
S&P-500	AEB	2.640,87	USD	%-2,69	%-1,22
DOW JONES	AEB	24.103,11	USD	%-3,70	%-2,49
NASDAQ 100	AEB	6.581,13	USD	%-3,99	%2,89
NIKKEI-225	JAPONIA	21.454,30	JPY	%-2,78	%-5,76
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.170,88	USD	%-2,03	%1,07
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.066,85	EUR	%-2,41	%-1,74

Iturria: Bloomberg

## ERRENTA FINKOA

Errenta finkoan, hobekuntza utzi du hilabeteak Atlantikoaren alde bietako zor publikoaren bonuetan, inbertsiogile askoren babesia izan direnez, errentagarritasunak jaitzi direlako (prezio-igoera). Iparramerikako 10 urterako bonua %3ko kota psikologikotik urrundu da, eta epe bererako bonu alemaniarra ehuneko puntu erdiko zonara itzuli da. Gainera, azpimarratzekoa da herrialde periferikoen portaera ona, batez ere Espainiarena, rating-igoerak lagunduta 10 urterako bonuaren errentagarritasuna %1,16raino jaitzi baita. Aitzitik, hilabete hau ez da positiboa izan errenta finko pribatuko aktiboentzat.


INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2018ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,33	0,00	0,00
	6 HIL.	-0,27	0,00	0,00
	12 HIL.	-0,19	0,00	0,00
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,60	-0,06	0,03
	5 URTE	-0,10	-0,13	0,10
	10 URTE	0,50	-0,16	0,07
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,35	-0,14	-0,01
	5 URTE	0,08	-0,31	-0,31
	10 URTE	1,16	-0,38	-0,40

Iturria: Bloomberg

## DIBISAK

Aitzitik, hilabete hau ez da positiboa izan errenta finko pribatuko aktiboentzat. Azkenik, burtsetan ezegonkortasun handia bizi izan den arren, hil honetan ez da gorabehera handirik gertatu dibisetan. Dolarrak apenas galdu du %1 euroarekiko, eta 1,23\$/€-an itxi du hila. Gainerako gurutzaketetan, euroak apur bat atzera egiten zuen, liberaren aurrean; yenaren aurrean, berriz, suspertzen ari zen.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg